


EUSKERA

APIRILA MAIATZA EKAINA 2019



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Bilbao

Culture Lab

Proiektu artistikoen komunikazio digitala



Azkuna Zentroak Culture Lab antolatuta du, arte eta kultura garaikideko profesionalentzako programa, proiektu artistikoen komunikazio digitala nola hobetu aztertzeko, eta prozesu sortzaileak identitate digitalez hornituko dituzten narratibak ikertzeko. Digital Identities-ek zuzendutako laborategi honetan, tresna berriak landuko dira, eduki digitala sortu, eta praktika artistikoa hedatzeko, eta mahai-inguru batean kultura-jarduerak eta horien alderdi digitala aztertuko dira.

Proiektuak aurkezteko deialdia otsailaren 26tik apirilaren 16ra arte dago zabalik.

Laborategi artistiko-digitala

Laborategia maiatzaren 16tik 17ra arte izango da, eta Abhay Adhikari, Sarah Gillett, Sharna Jackson, Ramya Rajaraman, Tom Higham eta Cori Moorek emango dute. Tailer eta jarduera batzuen bidez, aukera emango da proiektu artistikoak ezagutarazteko jakintza digital berriak ikasteko; era berean, zenbait teknika eta tresna aztertuko dira, teknologia digitalaren bidez adierazpen-forma berriak garatzeko eta eraldatzeko.

Mahai-ingurua

Digital Identities-ek, gainera, hitzaldi ireki bat egingo du maiatzaren 16an (osteguna), kultura-jardueren nortasun digitalez hausnartzeko. Mahai-inguruan bilduta, sare sozialak funtsezko tresnak al dira praktika artistikoa erakusteko eta sustatzeko? Zein balio gehigarri izan dezake euskarri digitalak?

Haien funtzioa eta beharra aztertzeaz gain, sormen artistikoa gizartearekin lotzeko estrategia digitalak baloratu eta diseinatuko dira.

Online egonaldia

Laborategiko parte-hartzaile guztien artean, hamar aukeratuko dira, Digital Identities taldeak emango duen 3 hilabeteko online egonaldia egin dezaten. Programa amaitzeko, hitzaldi bat izango da azaroaren 5ean, hamar egoiliarrek landutako lanak parteka ditzaten.



Otsailak 26 > apirilak 16

DEIALDI IREKIA PROIEKTUEN AURKEZPENA

Laborategian parte hartzeko izena emateko inprimakia bete behar da, hemen: azkunazentroa.eus

Kolektibo edo erakunderen batekoa bazara, zure taldeko hiru kidek har dezakete parte gehienez. Guztira, 30 artista, kolektibo eta/edo agente kultural hautatuko dira.

Hautatutako pertsonak ordainketa egin beharko dute izena emateko: 25€ / 20€ Az txartelarekin.

Maiatzak 16, osteguna

9:00-14:00 eta 15:00-17:00

LABORATEGI DIGITALA
Inskribatutako pertsonentzat
Bastida Aretoa

18:00 HITZALDIA / MAHAI-
INGURUA

Sarrera dohainik
gonbidapenarekin (jaso
Infopuntuan), eserleku guztiak
bete arte

Hizkuntza: ingeleza

Bastida Aretoa

Maiatzak 17, ostirala

9:00-15:00

LABORATEGI DIGITALA
Inskribatutako pertsonentzat
Bastida Aretoa